



ZINEGOTZI DELEGATUAREN D24/0790. DEKRETUA

Administrazio Orokorreko teknikari lanpostua: Behin-behineko onartuak, epaimahaiaren izendapena eta oinarrien aldaketa

Zinegotzi delegatuak D24/0729 dekretuaren bidez administrazio orokorreko teknikari lanpostua bitarteko langile batekin betetzeko hauta prozesua arautuko duten oinarriak onartu zituen, eta bide batez, aipatu lanpostuaren hautaketan parte hartu ahal izateko Lanbide bidez egin beharreko deialdia.

Hautaketa prozesuan parte hartzeko eskabideen aurkezpenerako epea amaiturik, hona Zinegotzi delegatuen (2023-06-27ko D23/0827 dekretuan alkateak emandako delegazioen baitan), ERABAKIA:

BAT: Hautaketa prozesua arautuko duten oinarrien 6. ataleko aldaketa (Hautaketa prozesua) .

Hurrengo hau dioenean:

SEIGARRENA. HAUTAKETA PROZESUA.

Hautaketa prozesuak bi fase izango ditu.

1.fasea: Merezimenduen balorazioa.

Lehiaketako merezimenduekin puntuazio gehien lortzen duten lehen 5 izangaiak bakarrik hautatuko dira bigarren fasera pasatzeko. Bost izangai hauetako inork ez baluke prozesua gaindituko edota lanpostua hartuko, zerrendako seigarren eta hamargarren postuetan daudenek jarraituko dute hautaketa prozesuan eta gainerakoekin prozedura bera jarraituko da.

Fase honetan merezimendu hauek baloratuko dira:

- Lan-esperientzia alor publikoan: Eskainitako lanpostuaren antzeko eginkizunak betetzen edozein administrazio publikotan izandako esperientzia profesionala baloratuko da. Hilabete bakoitzeko puntu 1 emango da, gehienez ere 12 puntu.

- Lan-esperientzia alor pribatuan: Eskainitako lanpostuaren antzeko eginkizunak betetzen edozein enpresa edo elkartetan izandako esperientzia profesionala baloratuko da. Hilabete bakoitzeko 0,5 bat emango da, gehienez ere 6 puntu.

- Prestakuntza espezifikoa: lanpostuaren eginkizunekin lotura zuzena duten gaiei buruzko prestakuntza espezifikoa baloratuko da, betiere ikastaroa administrazio barruan egina bada (EUDEL, HAEE, etab.) edo Unibertsitate mailako erakunde batean. Puntu bat emango da 60 prestakuntza- orduko. Soilik onartuko dira azkeneko 5 urtetan egindako ikastaroak. Gehienez ere 6 puntu.



Merezimendu hauek ebaluatu ondoren, epaimahai kalifikatzaileak behin-behineko zerrenda osatuko du, udal web orrian iragarritz, eta 3 lan eguneko epea emango zaie erreklamazioak aurkezteko, iragarkiaren biharamunetik kontaktzen hasita.

Balitzko erreklamazioak ebatzi ondoren, emaitzen behin betiko zerrenda onartuko da, puntuazio gehien lortu duten lehen bost (5) izangaiak bigarren fasera deituz, hau ere udal web orriko iragarkiaren bitartez.

2. fasea: Oposizioa.

Oinarri hauetan deskribatutako lanpostuaren eginkizunekin zer ikusia du(t)en proba/ak egingo du/ditu epaimahaiak.

40 punturekin baloratuko da eta gutxienez 20 lortu beharko dira proba gainditzeko.

Beste hau esan behar du:

SEIGARRENA. HAUTAKETA PROZESUA.

Hautaketa prozesuak bi fase izango ditu.

1.fasea: Oposizioa

Oinarri hauetan deskribatutako lanpostuaren eginkizunekin zer ikusia du(t)en proba/ak egingo die/dizkie epaimahaiak prozesuan onartuak izan diren hautagai guztiei.

48 punturekin baloratuko da eta gutxienez 20 lortu beharko dira proba gainditzeko.

Oposaketa faseko proba ebaluatu ondoren, epaimahai kalifikatzaileak behin-behineko zerrenda osatuko du oposaketa faseko puntuazioarekin, udal web orrian iragarritz, eta 3 lan eguneko epea emango zaie erreklamazioak aurkezteko, iragarkiaren biharamunetik kontaktzen hasita.

2.fasea: Merezimenduen balorazioa.

Oposaketa fasea gainditu duten izangaiak bigarren fasera pasako dira.

Fase honetan merezimendu hauek baloratuko dira:

- Lan-esperientzia alor publikoan: Eskainitako lanpostuaren antzeko eginkizunak betetzen edozein administrazio publikotan izandako esperientzia profesionala baloratuko da. Hilabete bakoitzeko puntu 1 emango da, gehienez ere 12 puntu.

- Lan-esperientzia alor pribatuan: Eskainitako lanpostuaren antzeko eginkizunak betetzen edozein enpresa edo elkartetan izandako esperientzia profesionala baloratuko da. Hilabete bakoitzeko 0,5 bat emango da, gehienez ere 6 puntu.

- Prestakuntza espezifikoa: lanpostuaren eginkizunekin lotura zuzena duten gaiei buruzko prestakuntza espezifikoa baloratuko da., betiere ikastaroa administrazio barruan eginga bada (EUDEL, HAEE, etab.) edo Unibertsitate mailako erakunde batean. Puntu bat emango da 60 prestakuntza- orduko. Gehienez ere 6 puntu.



Lezoko Unibertsitateko Udala

2024PE090007

Merezimendu hauek ebaluatu ondoren, epaimahai kalifikatzaileak behin-behineko zerrenda osatuko du, oposaketa faseko puntuazioa eta merezimenduen balorazioan lortutako guztizko puntuazioarekin, udal web orrian iragarritz, eta 3 lan eguneko epea emango zaie erreklamazioak aurkezteko, iragarkiaren biharamunetik kontatzen hasita.

Balizko erreklamazioak ebatzi ondoren, emaitzen behin betiko zerrenda onartuko da, hau ere udal web orriko iragarkiaren bitartez.

BI: Hauta prozesua kalifikatu behar duen epaimahaia izendatzea:

Epaimahaiburua: Xabier de la Mota Vazquez

Epaimahaikideak:

- Edurne Etxezarreta Abasolo
- Miren Gurutzeta Sorondo Otegi

Idazlaria:

- Karlos Etxezurieta Sarasola

HIRU: Onartu eta argitaratzea hautaketa prozesuan parte hartzeko onartuak nahiz baztertuak izan diren izangaien behin-behineko zerrenda. (I. ERANSKINA)

Behin-behineko zerrenda hau behin betikotzat joko da, Udal web orrian argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita 3 laneguneko epean erreklamaziorik jaso ezean.

LAU: Onartuen zerrendako izangaiak, oposizio faseko probara deitzea. Proba, idatzizko azterketa bat izango da eta uztailaren 16an izango da, Lezoko Bekoerota Kiroldegiko frontoian, goizeko 9.30etatik -12.00etara.



I. ERANSKINA

Onartutakoen behin-behineko zerrenda:

NAN	IZEN ABIZENAK	HE
***7955**	ADRIEN GRIVILLERS PEÑA	3
***6912**	AINARA VELEZ ARA	3
***6012**	AITOR IZULAIN BERASARTE	4
***6952**	AITOR MAKAZAGA DE LA TORRE	3
***3661**	AITZIBER IRIZAR GONZALEZ	3
***0800**	ALAZNE RECIO SANCHEZ	3
***3827**	ALEX ARANZABAL ALONSO	3
***4701**	AMAIA ROMERO FERNANDEZ	3
***5529**	AMAYA ORTEGA SILGUERO	3
***9465**	ANDONI POLO ROCA	4
***3506**	ASIER PELAEZ MURILLO	3
***7015**	BORJA REBOLLAR IMAZ	3
***5704**	CARLA SISTIAGA PEREZ	3
***3943**	DANIEL MOURENZA GABIOLA	3
***5473**	DEIENE GASTON LEICEA	3
***7593**	EDURNE ARISTI CAREAGA	3
***4191**	ENRIQUE AGUIRREBEÑA FERNANDEZ	3
***4645**	ERIKA RICOY TORRE	3
***3899**	GAIZKA SEGUI LUBIANO	3
***4223**	HAIZEA IRAOLA OTEGUI	3
***1717**	IDOIA ARRILLAGA ALDALUR	3
***3319**	IRAITZ BEOBIDE GURIDI	3
***4910**	IRATI BEREINCUA RAMOS	4
***9083**	ITXASO BERASATEGUI SAEZ CASTILLO	3
***6354**	ITZIAR ELORZA ZORROZUA	4
***0058**	JAIONE GOMEZ GARMENDIA	4
***4700**	JAVIER ROMERO FERNANDEZ	3
***8049**	JON MARTINEZ SANCHEZ	3
***3415**	JOSU UNANUE AGUIRRECHE	3
***0762**	JULENE MENDIA BENGOTXEA	3
***7797**	JUNE BILBAO VILLALBA	3
***8147**	KEPA IRIONDO ILLARRAMENDI	3
***8707**	KOLDO AITOR ASTIBIA OYARZABAL	3
***1772**	LAIDA ARRUTI ANSA	3
***3550**	LAURENTZE SAGARZAZU OSA	3
***1259**	LEIRE LOIDI TOLOSA	3
***2696**	LEIRE MOMBLONA EZKURRA	3



***5644**	LEIRE PEÑALBA REBOLLEDO	3
***9410**	LEIRE SAN SALVADOR DEL VAL GAZQUEZ	3
***6514**	LUIS PICARDO AUSIN	3
***2713**	MADDI IDARRETA MEDIAVILLA	4
***8957**	MAIALEN BORDAGARAY EIZAGUIRRE	3
***6742**	MAIALEN GARATE ILLARRAMENDI	3
***6764**	MAIALEN LOPEZ IÑARRA	3
***6705**	MAITANE AIZPURU ITURZAETA	3
***1231**	MAITANE GARCIA FLORES	3
***1921**	MARGOT FERNANDEZ AGUIRREZABAL	4
***5828**	MARIA MERCEDES CASTRO GARCIA	3
***1781**	MARTA CORRAL ANDUEZA	3
***9175**	MIKEL CORADA CABANELLAS	3
***8427**	MIKEL MUÑOZ-BAROJA FERNANDEZ	4
***7889**	MIREYA ALBERDI ZUAZO	3
***6687**	NAGORE SARASOLA LERCHUNDI	3
***7626**	NAHIA URKIA IRIGOYEN	3
***4857**	NEREA ZABALETA ERDOCIA	3
***0471**	OIHANE VADILLO AIO	4
***3105**	OINATZ ELUSTONDO LEUNDA	3
***0117**	OLAINTZ CALVILLO ESTEVEZ	3
***4264**	SARA CALVO ATENCIA	3
***9686**	UNAI BELLOTA RODRIGUEZ	3
***4274**	UNAI DELGADO ARANBURU	3
***5343**	YARA MUJIKI GARIN	4

Ez onartutakoen behin-behineko zerrenda:

NAN	IZEN ABIZENAK	HE	Arrazoia
***9463**	ELENA SANCHEZ ARRILLAGA	4	(1)

(1) : Deialdian eskatutako titulazio baldintzak ez betetzeagatik



Lezoko Unibertsitateko Udala

2024PE090007

Erabakiaren aurkako errekurtsioak:

a) Auzitara jo aurretik, eskatzaileak, hala nahi izanez gero, erabakia berraztertzeko errekurtsioa aurkez dezake 39/2015 Legearen arabera.

- Horretarako, hilabeteko epea dauka, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita.
- Errekurtsioa aurkeztekotan erabakia hartu duen organoarengana jo behar da.

b) Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkez dezake zuzen-zuzenean.

- Horretarako, bi hilabeteko epea dauka, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita.

- Errekurtsioa aurkeztekotan, EAEko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzitarako Donostiako epaitegira jo behar da.

Sinatzailea Zinegotzi delegatua, Eneritz Arruti Osanbela

Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen sinesgarritasuna ziurtatzeko jo interneteko orrialde honetara:
<https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/53/AAAAR8HLR.DHJ1>